

**BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
EUSKALTEGIEN AZPIBATZORDEA**

Batzarraren AKTA.

2017ko otsailaren 27a – 9:30 h

BERTARATUAK

Bilboko Udala

Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)

Marijo Arrieta (Euskarako zuzendariordea)

Euskaltegiak

AEK. Galder Lizarralde

Bilbo Zaharra. Jon Maguregi

Deustuko Unibertsitatea. Mertxe Luzuriaga

Juan Mateo Zabala. Nerea Telleria

Labayru Fundazioa. Josemi Vidales

Mondragon Lingua. Aitziber Iturricastillo

Ezin etorria aldez aurretik adierazi dute

Bai&By. Noemi Casero

Gabriel Aresti. Xabier Monasterio

Ulibarri. Patxi Agirregomezkorta

Idazkaritza teknikoa

Bilbao Metropoli-30. Idoia Postigo

Labayru Fundazioa. Lander Solozabal

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILERAREN (2017-01-16) AKTA ONARTU.

Aurreko bileraren **akta onartu da** aho batez.

2.- LEHENENGO BILERAREN ONDORIOEN LABURPENA.

Labayru Fundazioko Lander Solozabalek azaldu du, etorkizunerako bisioa lortzeko, **hauek izango direla Euskaltegien azpibatzearen lana gidatuko duten ardatzak:**

- **Aniztasuna:** kolore guztiak, etorkinak, ghetto-rik ez...
- **Interes orokorra:** babes, erabilera arlo guztietan...
- **Elkarlana:** bateragunea, "engranaje" berdina, denok batera, mugimenduan...
- **Nortasuna:** identitatea, kultura erreferente bihurtzea, turismo (kanpo irudia)
- **Modernitatea:** teknologia, sare sozialetan....

3.- HELBURUEN PROPOSAMENA

Ondoren, bakarkako eta taldeko dinamika bat egin dugu helburuen eta ekintza zehatzen zerrenda bat osatzeko, aurretik definitutako bisioa lortzeko bidean aurrerapausoak emate aldera. Behin adostuta, parte-hartzaileek lehentasunaren arabera sailkatu dituzte ekintzok, eta honako hau da horren emaitza:

- Ikasleentzako Udalaren diru-laguntzen politika berraztertu (21)
- Etorkin, guraso, merkatari eta talde zehatzentzako baliabideak eskaini (14)
- Euskaltegi, elkarte eta euskarazko ekintzen webgunea sortu eta sare sozialetan zabaldu (7)
- Turistentzako baliabideak sortu eta eskaini (hiztegiak, app-ak, eskuorriak,...) (5)
- Hizkuntza-paisaia euskara zabaldu (dendetan, jatetxeetako menuetan...) (3)
- Gazteentzako ekintza gehiago eskaini (aisialdia, kirolak, musika...) (3)
- *Euskaraz bizi nahi dut* mapa sortu (3)
- Udalaren ikurra euskaltegietan jarri, elkarlana erakusteko (3)
- Euskarazko erreferenteak zabaldu
- Euskaltegiak eta euskara-elkarteak bisitatze jardunaldiak
- Bisita gidatuak euskaldunentzat

Proposamen hau Aholku Batzorde Orokorrari aurkeztuko zaio, aztertu dezan eta beharrezkoak diren ekarpenak egin ditzan. Eraitza hori hartuta, azpibatzaordeen hurrengo bilerak deituko ditugu Aste Santuko oporren ostean.

Bilbon, 2017ko otsailaren 27an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA